

Aurretik ere jada hartuak zituen beste neurri batzuk

EROSKI-K PREBENTZIO NEURRI GEHIAGO HARTU DITU BERE LANGILEENTZAT, HALA NOLA MASKARAK, AURPEGI PANTAILAK ETA BABES BETAURREKOAK

- Bere sare osoan banatu ditu langile guztientzat
- Jendearen aurrean aritu behar duten langileek arrisku handiagoa dutenez, aurpegi pantailak eta babes betaurrekoak izango dituzte
- Horretaz gainera, kamera termografiko bat ezarri du Elorrioko egoitzan bertaraten direnen tenperatura kontrolatzeko

Elorrio, 2020ko apirilaren 8a.- [EROSKI](#)k babes eta prebentzio neurri gehiago ipini ditu dendetan, egoitzetan eta plataformetan dituen langileentzat, eta, hala, osasun agintarien gomendio berrietara egokitu da. Horretaz gainera, maskarak banatu dizkie sare komertzialeko langile guztiei. Bestalde, jendearekin kontakturik gehien duten langileei babes betaurrekoak eta aurpegi pantailak banatu dizkie. Babes elementu horiekin batera, kamera termografiko bat ezarri du EROSKIk Elorrioren (Bizkaia) duen egoitzaren sarreran, bertaraten direnen tenperatura kontrolatzeko prebentzio neurri gisa.

[Prebentzio eta babes neurri](#) horietatik kanpo, EROSKI beste neurri batzuk hartzen joan da bere saltokietan, alarma egoera dekretatu dutenetik. Esaterako, garbiketa, produktuen eskuragarritasuna, zerbitzuen egokitzapena eta erosketa egiteko orduan ohitura jakin batzuek duten garrantziari buruzko informazioa. Garbiketa zerbitzua indartu egin dugu, eta kontaktu gainazalen desinfekzioa areagotu. Bestalde, eskularruen erabilera orokortu da bai langileetan eta bai bezeroetan. Hala berean, soluzio hidroalkoholiko bat ipini dugu ekipoentzat, eta ahal den neurrian zaku barruan produktua ez manipulatzeko gomendatu.

Ordu aldaketa eta erosle kopuruaren kontrola

EROSKIk aurreratu egin du itxiera ordua 20:00etara. Saltokietara eroatera doazen kopurua kontrolatzeko sistema bat ezarri dugu; kontua da bi metroko gutxieneko segurtasun distantzia bermatzea, osasun agintariak gomendatzen duten bezala. Erosketa zein ordutan egin nolabait laguntzearen, EROSKI bere kanal digitalen bidez ari da jakinarazten batez beste zenbat jende doan orduz ordu hipermerkatuetara eta supermerkatuetara; informazio hori astero berritzen du.

Horrekin batera, joan den astean, metakrilatozko 4.000 pantaila baino gehiago instalatu ditu, bai langilea eta bai bezeroa ordainlekuan babesteko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

Ezohiko egoera honetan horniketarik eta zerbitzurik onenak emateko, EROSKIk indartuta dauzka bere plataforma logistikoek duten ekoizpen gaitasuna, eta orobat dendetako horniketa eta lantaldeak. On line supermerkatua ere martxan du, baita erosketa etxera eramateko zerbitzua ere; berdin martxan daude bere 40 bilketa guneak, on line egindako eskariak autoz zein oinez hartzera joateko. Zerbitzu horien eskaria normaletik kanpo handitu denez, EROSKIk %80 handitu du horien gaitasuna, eta erosketak etxera eramateko segurtasun neurri gehiago hartu ditu.

Kolektiborik zaugarrienei lehentasunez laguntzea

EROSKIk neurriak ezarri ditu bere saltokietan zenbait kolektibori lehentasuna emateko, hala nola osasun langileei, segurtasun indarrei, adinekoei, haurdunei eta desgaitasunak dituztenei.

Hortaz, osasun langilea eta segurtasun indarretakoa dela erakusten duenak lehentasuna izango du EROSKIren dendetan goizeko hamarretatik saltokia itxi arte, zortzietan. Kolektibo horren eginahalean laguntzea da helburua, lan izugarria eta ezin baliotsuagoa egiten ari baita. Neurri horren bidez, erosten ematen duten denbora gutxitzea da xedea, asti gehiago izan dezaten eta atsedean hartzeko beta.

65 urtetik gorakoek, haurdunek eta desgaitasunak dituztenek, berriz, lehentasuna izango dute EROSKIren dendetan 09:00etatik 10:00etara (Balearretan 08:30etik 09:30era); izan ere, osasun agintariek diotenez, kolektiborik zaugarrienak dira. Horretaz gainera, lehentasunez artatuak izango dira freskoen ataletan, hau da, arrandegian, harategian eta urdaitegian. Gainera, lehentasuna ematen dieten ordainlekuak jarri ditugu.

Kolektiborik zaugarrienei laguntzeko martxan jarri dira, halaber, zenbait ekimen. Esate batera, Gurutze Gorriarekin batera, elkartasun ekintza bat lantzen ari da bere saltoki guztietan krisi honetako kolektiborik zaugarrienen alde —hau da, COVID-19aren krisiak lehen baino bazterketa arrisku handiagoan laga dituen haurrak eta familiak— haien elikaduran eta higienean laguntzeko. Kanpaina horretan, EROSKIk hasieratik jarri ditu 50.000 euro, eta, ondoren, bikoiztu egingo du bezeroek emandako kopurua. Gurutze Gorriak 25.000 familiari lagunduko dio diru horrekin. Hala berean, EROSKI arropa ematen ari da aterperik ez dutenentzat. Udal batzuek kirolegiak utzi dizkiete, COVID-19 honetan dekretaturiko berrogeialdia non igaroa izan dezaten. Oinarrizko ehunak dira, hala nola barruko arropa, elastikoak, galtzak eta kiroletako oinetakoak

Gomendioak erosketa egiteko

EROSKIk indartu egin ditu orobat bezeroei erosketak egiteko orduan ematen dizkien gomendioak. Esaterako, familia osotik kide bakarra joatearena, arrisku

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)



taldeen kasuan dendara ahal den gutxiena agertzea; eskularruak erabiltzea eta erabili eta gero paperontzietara botatzea, kontakturik ez egoteko txartelarekin zein sakelakoarekin ordaintzen saiatzea, dendara erosketa zerrenda egina eramatea...

EROSKI
Komunikazio Korporatiboa

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI - PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE
JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)